# 3.MAILAKO FROGARIK EZ!

Lehen Hezkuntza sei ikasturtetan antolatzen du LOMCEk, ziklokako antolaketa apurtuz, eta norbanakako froga ezarriz 3. mailan Matematikak eta Hizkuntzak ebaluatzeko (kasu batzutan 8 urterekin).

2009tik EAEko hezkuntza sisteman ebaluazio diagnostikoak egiten dira ikastetxeen hezkuntza-jardueraren "argazki" bat lortzeko asmoz. Hala, mota desberdinetako froga egiten zaizkie 4. mailako ikasleei (10 urteko ikasleak, kasu batzutan).

LOMCE betetzeko, 2015-2016 ikasturtetik aurrera orain arte 4. mailan egin den froga 3. mailara aurreratzea erabaki du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak.

2015 honetan 30 ikastetxe aukeratuko ditu (15 publiko eta 15 pribatu) eta ez ditugu ezagutzen irizpideak. Maiatzean edo ekainean 3. mailako froga honen entsegua egingo dute ikastetxe hauetako 3.mailako ikasleek.

***Froga pilotu honen kontra gaude arrazoi hauengatik:***

**1. Ez dago justifikazio pedagogikorik azterketa hau urtebete aurreratzeko.** Orain arte 4. mailan egin da azterketa hau momenturik egokiena zela uste zelako ikasleen ezagupenak ebaluatzeko. Uste dugu ez dagoela justifikaziorik irizpide administratiboak pedagogikoen gainetik jartzeko, honelako froga bat noiz egin behar den erabakitzerakoan.

**2. Ziklokako antolaketa apurtuko da,** LOMCEk derrigortzen duen moduan. Orain hiru ziklotan banatzen da lehen hezkuntza pedagogikoki egokiena dela uste delako (2 urte ditu ikasleak ezagupenak lortzeko). Azterketa 3. mailan egiten bada antolaketa hau apurtuko da eta LOMCE aplikatuko da. Orain arte aldaketa hau egiteko erabili den justifikazio bakarra LOMCE obeditzea izan da.

**3. Ez du ezertarako balioko orain arte egindako lanak.** Urte bat aurrekoekin konparatuz, ebaluazio diagnostikoak hobekuntza planak egiteko, ezarritako hobekuntzen efikazia ezagutzeko eta gure hezkuntza sistemaren egoera ezagutzeko erabiltzen dira. Ebaluaketa 4. mailatik 3.mailara pasatzean ez dute baliorik izango orain arte egindako azterketen emaitzek, ondorioz zerotik hasi beharko ginateke berriro, orain arte egindako lan guztiak ezertarako balioko ez baluke bezala.

**4. Euskal hezkuntza sistemak LOMCE legearen oinarrian dauden interes ideologiko eta partidistetatik at egon behar du.** Irizpide pedagogikoan oinarrituak egon behar dira euskal hezkuntza sisteman egiten diren aldaketak. Beste sistemekin konparatuta lortutako emaitzek, legitimatu egiten gaituzte eskaera hori egitera.

**5. Eusko Jaurlaritzaren desinbertsioa jasaten ari garen garai honetan, batez ere arlo publikoan,** ezin da inolaz ere onartu honelako aldaketetan inbertitzea hainbat behar daudenean beste arloetan (ikastetxeen hobekuntza, eskola-materialak, baliabideak, eta abar).

info+ lomce.ehige.eus

LOMCE EZ!

ehige
gurasoen elkartea

# ¡NO A LA PRUEBA DE 3º DE PRIMARIA!

La LOMCE elimina de forma innecesaria los ciclos de primaria y concibe esta etapa educativa como la sucesión de 6 cursos independientes obligando a realizar una prueba individualizada en 3º para evaluar Matemáticas y Lengua (con 8 años cumplidos en algunos casos).

El sistema educativo vasco realiza desde 2009 unas evaluaciones de diagnóstico con la finalidad de obtener una "foto" de la práctica educativa de los centros escolares mediante pruebas que se realizan al finalizar el segundo ciclo de primaria, es decir, en 4º curso (con 10 años cumplidos en algunos casos).

Para cumplir con la LOMCE, el Departamento de Educación del Gobierno vasco ha decidido realizar, a partir del curso 2015-16, las pruebas de diagnóstico al finalizar el tercer curso de primaria.

En 2015 el Departamento ha decido seleccionar, sin criterio conocido, 30 centros (15 públicos y 15 privados) donde a lo largo del mes de mayo o junio se realice un ensayo de esa prueba.

***Estamos en contra esta prueba:***

**1. No existe justificación pedagógica para adelantar un año la prueba.** Hasta ahora, la prueba de evaluación diagnóstica se ha realizado en 4º de primaria por considerar que era el momento adecuado teniendo en cuenta la madurez de las y los alumnos y los conocimientos adquiridos hasta ese curso. No existe justificación para que los criterios administrativos se impongan a los pedagógicos a la hora de fijar el momento idóneo para realizar una prueba académica.

**2. Se romperá con la organización por ciclos,** tal y como obliga la LOMCE. La educación primaria se organiza hasta ahora en ciclos de 2 cursos porque se considera pedagógicamente más adecuado que el alumnado tenga 2 años para lograr los objetivos planteados para cada ciclo. Realizar la prueba en 3º obligará a romper con esta organización. Hasta ahora, la única razón que se ha esgrimido para justificar este cambio es el acatamiento de la LOMCE. Otra vez, criterios administrativos se imponen a las reflexiones educativas.

**3. Todo el trabajo realizado a lo largo de estos años con las evaluaciones de diagnóstico no servirá para nada.** Los resultados de estas evaluaciones sirven para, mediante la comparación de diferentes años, realizar planes de mejora, evaluar la eficacia de acciones correctivas ya emprendidas y conocer el estado de nuestro sistema educativo. Al pasar la prueba de 4º a 3º, no servirán los resultados obtenidos hasta el momento, por lo que tendríamos que empezar otra vez de cero.

**4. El sistema educativo vasco necesita mantenerse al margen de los intereses ideológicos y partidistas de la LOMCE.** El sistema educativo vasco, amparado por los resultados que viene obteniendo en todas las evaluaciones comparativas con otros sistemas, se siente legitimado para exigir que todas las decisiones que afecten a su organización, funcionamiento y a su praxis educativa se basen en criterios pedagógicos que redunden en la mejora del propio sistema y de la educación de nuestros hijos e hijas.

**5. En una época caracterizada por la desinversión del Gobierno vasco en el sistema educativo, principalmente en el público,** es inaceptable que la Administración dedique recursos a cambiar prácticas educativas consolidadas en vez de invertir en las mejoras que desde la comunidad educativa se le reclaman a diario (mejoras de centros, de materiales educativos, de recursos, ...).

+info lomce.ehige.eus

ehige
gurasoen elkartea

LOMCE EZ!